

HIRI TESTUINGURUA ETA AZPIEGITURAK

Fadurako kiroldegia Bilbo metropoli-eremuko hiri-testuinguru konplexuan dago, baina gainerako metropoli-arearekin guztiz lotuta badago ere, erabiltzen duten pertsona gehienak bertakoak dira, Getxotik eta Berangotik etorritakoak.

Udal eskalara hurbilduz, kiroldegia Getxoko hiriguneko ertzean dago, hiri-garapenerako eremu garrantzitsua dena.

Fadura elementu estrategikoa da Getxoko hiri-antolamendurako plan orokorrean eta

ekipamenduen eta hiri-zerbitzuen “sistema orokorrak” direlakoan barruan daude. Ekipamenduetarako erreserbatutako eremu handienetako bat da. Horrez gain, garrantzitsua da kontuan hartzea kiroldegia Iturribarriko eremuan egiten ari den garapen-berrian izan dezakeen eragina kontuan hartzea, eta alderantziz, hiriaren zati berri horrek kiroldegian izango duen eragina ere bai, irisgarritasunari eta inguru hurbilarekin duen erlazioari dagokienez





←
Getxo dagoen Bilboko
metropoli-eremuaren
iparraldea.

DENTSITATEA ETA HIRI JOERAK

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Erroldaren estatistika etengabea, Open Data Euskadi.

Getxoko udalerriak etxebizitza-kopuruaren gorakada izan zuen 2010etik 2015era: ia 1.000 etxebizitza gehiago eraiki ziren (% 2,5 inguru gehiago). Bitxia bada ere, udalerrian erroldatuta zegoen biztanle kopurua aldi horretan 80.277 izatetik 78.554 izatera pasa zen 2016. urtean (% 2,14ko jaitsiera).


dentsitateak Getxoko zenbait eremutan, horien artean Fudurako ingurukoena dagoela, Bilboko hirigunekoan antzekoak direla.

Etxebizitza kopuru handia familia-nukleoaren etxebizitza nagusia da, eta udalerrri hurbiletan bigarren etxebizitza ugari daude.


Horren arrazoia izan liteke udalerrian dauden etxebizitza gehien antzinatasun erlatiboa. Interesgarria da nabarmentzea biztanleen

ETXEBIZITZEN DATUAK

Etxebizitza guztiak



Biztanleria osoa



Etxebizitzen batez besteko antzinatasuna 2015. urtean, 40,1 urte
Etxebizitzen batez besteko azalera erabilgarria 2015. urtean: 105,8 m²

2014KO LURRALDEKO DATUAK




Udalerriaren azalera: 184 Ha



BIZITEGI LURZORUA
53,23%
630 Ha





SISTEMA OROKORREN LURZORUA
24,07%
285 HA



LURZORU URBANIZAEZINA
21,65%
256 Ha





EKONOMIA JARDUEREN LURZORUA
1,05%
12 Ha



← ←
Hiri morfologia,
eraikinak.

←
Etxebizitza-dentsita-
tea, errolda-barrutietan
oinarrituta.

< 25 hab/Ha
25 - 50 hab/Ha
50 - 100 hab/Ha
100 - 200 hab/Ha
200 - 300 hab/Ha
300 - 500 hab/Ha
> 500 hab/Ha



← ←
Etxebizitza nagusien
eta etxebizitza guztien
arteko erlazioa
errolda-barrutien
arabera.

< 80 %
80 % - 90 %
90 % - 100 %

←
Etxebizitza hutsen eta
etxebizitza guztien
arteko erlazioa
errolda-barrutien
arabera.

0 - 5 %
5 % - 10 %
10 % - 20 %
> 20 %

EKIPAMENDU PUBLIKOAK

Garrantzitsua da kontuan hartzea kiroldegiak erakunde eta espazio mailan bere inguruan dauden ekipamendu publikoekin sortzen dituen harremanak. Esaterako, 1 km-ko inguruan bakarrik 9 hezkuntza-erakunde publiko daude, haurtzaindegiak, ikastetxeak eta institutuak kontuan hartuz.

Fadurak oso harreman hurbila du Getxoko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeekin, izan ere, ume askok hor kirola egiten dute Multikirolak gisako programen bidez. Udalaren ekimena da ikastetxeetan kirol-jarduera sustatzeko. Horrez gain, Getxo Kirolak 2016ko txostenaren arabera, urte horretan 14 ikastetxek parte hartu zuten eskola-igeriketa-programan, Fadurako instalazioetan egiten dena.

Getxoko Udalaren beste ekimen bat, adinekoentzat dena, Fadura ibilbide osasungarriko sare batean sartzea da, zahartze aktiboa izateko. Horregatik interesgarria izango litzateke udalerriko hiru osasun-zentroen arteko lotura hobetzea (Bidezabal, Alango eta Areeta), garraio publikoko sare eraginkorrago baten eta oinezkoen lotura irisgarri eta kalitatezko sistema baten bidez.

Gobela ibaian zehar korridore ekologiko eta zibiko bat sortzea ekipamenduekin lotura handiagoa sortzeko modua izango litzateke, iparralde-hegoalde ardatzean, baina ez da ahaztu behar irisgarritasun-arazorik handienak ekialderantz eta mendebalderantz doazen loturetan daudela





GETXOKO HAPO-REN SISTEMA OROKORRAK

Iturria: Getxoko HAPO, bertsio osoa eta eguneratua 2012ko abenduan.

Getxoko HAPOren zenbait puntu interesgarriak dira Fadurako eremurako, batik bat hiriak etorkizunean izan dezakeen bilakaera, hiri-eremuaren eta ekipamenduen kalitateari dagokionez.

Ekipamenduen Sistema Orokorra

Fadurako eremu osoa, iparraldean dauden eskola-ekipamenduak (Institutua eta LHI) barne hartuz, “Ekipamendu publiko” gisa hartzen da.

Eremu horiek Ekipamendu Sistema Orokorra direlako barruan ere daude, “lurraldeko egitura orokor eta organikoaren funtsezko elementuak direnak”. (3.2.1. art. eta hurrengoak).

Mapan ikusten denez, ekipamenduen eta hiri-zerbitzuen sistema orokorrak eta erabilera publikoko espazio libreen sistemak nolabaiteko erlazioa dute Gobela ibaiarekin. Horietako askok ardatz garrantzitsu eta jarraitu bat sortzen dute, eta hori aukera interesgarria da Fadurarako.


Kategoriaren eta erabilerei, ekipamenduei eta eraikuntzari buruzko baldintzen definizio osoa HAPOren Laugarren Atalean jasotzen da, 6.3.26. art. eta hurrengoetan

Beste Sistema Orokor interesgarri batzuk Fadurako eremuan

Fadurako eremua hiriko sistema orokorretarako garrantzitsua den eremu batean dago. Gobela ibaiaren eta Azpiegituren Komunikazio Sistema Orokorrek (saneamendu-sarearen kolektorea) osorik zeharkatzen dute eremua eta eragin handia dute plangintzan eta proiektuan jasotzen diren erabileretan.

Komunikazio-sistema orokorrarekin lotuta dagoen lurzorua, autobidearekin erlazionatuta dagoena, Fadurara ere lotuta dago. Bere hurbiltasuna dela eta, eremu horien paisaiaren diseinua eta kiroldegiaekin duen erlazioa kontu handiz aztertu behar dira.

Eta, azkenik, Erabilera Publikoko Espazio Libreen sistema orokorrak oso jarraitutasun nabaria sortzen du, eta Kiroldegia horren barruan dago. Eremu naturala, iparraldean eta Gobelan zehar, Bolueko hezegunea eta ibai-eremua hegoalderantz, sistema beraren barruan daude, eta hobekuntza-aukerak izan ditzake *thinking* **Fadura** proiektuan.



HIRI ANTOLAMENDUA

Iturria: Getxoko HAPQ, bertsio osoa eta eguneratua 2012ko abenduan.

Fadurako eremua zenbait hiri-eremuk inguratzeko dute, eta guztiek kategoria bera dute: “Eraikin irekiko dentsitate ertain-altua”.

Eremu horiek gehienak hiri-egitura finkatuz osatuta daude, eta epe ertainera aldatzeko aukera gutxi dituzte. Finkatutzat har daitezke.

Bestalde, tamaina eta garrantzi handiko zenbait eremu “Banaketa-eremutzat” eta “egikaritze-unitate” gisa sailkatuta daude, eta garapenak kiroldegian izango duen eraginarengatik kontuan hartu behar da.

Iturribarri I

Iturribarri eremurako 23. ordenantzak dentsitate ertaineko bizitegi-eremu mistoa ezartzen du, eta eraikin hori nagusiki etxebizitza kolektiboa da, bloke irekian. Eremu hori dagoeneko garatuta dago, eta guztiz finkatuta.

Iturribarri II

Iturribarri II eremurako 24. ordenantzak dentsitate ertaineko bizitegi-eremu bat definitzen du. Eremu osorako 4 solairuko gehieneko garaiera ezartzen da eraikinerako, eta lursailaren % 40 hartzea.

Bi egikaritze-unitate mugatzen dira: bat, 8.265,98 m²-koa (5.127,29 m²-ko eraikigarritasuna), bestea, 89.175,84 m² (52.329,41 m² eraikigarri + 3.500eko erreserba ekipamenduetarako). Lehenengoan, 1.483 m², Babes Ofizialeko Etxebizitzetarako dira; bigarrenetan, 14.732 m². Xehetasun gehiagorako aipatutako Ordenantza irakur daiteke

Zubilleta

Egikaritze-unitate hau bizitegi-eremu mistoa da, dentsitate ertainekoa, Gobela ibaiaren eta Uribe Kosta korridorearen artean kokatuta dagoena. Nagusitzen den eraikuntza mota bloke irekiko etxebizitza kolektiboa da.

Eraikinaren gehieneko garaiera 8 solairukoa da, eta gehieneko okupazioa % 51, beraz, sestra gaineko azalera eraikigarria 51.013,19 m² da. Egikaritze-unitate honetan azaleraren ehuneko bat uzten da babes-mailaren bat duten etxebizitzetarako: etxebizitza babestua, etxebizitza tasatua eta udal etxebizitza tasatua (9.016,82 m² mota bakoitzerako).

Fadura I, II, III

33., 34. eta 35. ordenantzek Fadura I, II, eta II eremuak definitzen dituzte hurrenez hurren.

I. eremua, kirol-instalazioen iparraldean, bizitegi-eremu mistoa da, eta bere eraikin nagusia garaiera handiko bloke irekiko etxebizitza kolektiboa da.

Fadura II eremua, dentsitate ertaineko bizitegi-eremu bat da, iparralderago kokatuta dagoena, Zubiletako eremuaren aldamenean.

Fadura III. eremua, Fadura I. eremuaren etxadia osatzen du. Eremu horretan familia bakoitzeko etxebizitzak eta bloke irekiko etxebizitza kolektiboak daude.



FADURAKO EREMUAN ERAGITEN DUEN HIRIGINTZA ARAUTEGIA

Iturria: Getxoko HAPO, bertsio osoa eta eguneratua 2012ko abenduan

Orain, Fadurako kiroldegian eragiten duten arautegian eta baldintzen laburpen bat aurkeztuko dugu.

Hirigintza (Getxoko HAPO – 2012ko abenduaren eguneratutako bertsioa).

Fadurako ia azalera guztia ekipamendu publiko gisa sailkatuta dago ekipamenduen Sistema Orokorren barruan. Ekipamendu-erabileraren definizioa HAPOn Laugarren atalean (6.3.26. art. eta hurrengoak) jasotzen da, eta bereziki interesgarriak dira artikuluko hauek:

- 6.3.29 art., ekipamendu erabilerari eta eraikitzeke baldintzei buruzkoa.
- 6.3.30. art., txikizkako merkataritza erabileraren onarpenari buruzkoa.
- 6.3.31. art., lehenagotik dauden ekipamenduen araubideari buruzkoa.

Eremuko mendealdeko ertzean dagoen luzetarako lerro bat bidei buruzko sistema orokorrek lotutako lurzoru gisa sailkatzen da HAPOn.

Gobela ibaiaren ibilguan zehar dagoen lerro osoa Komunikazioen Sistema Orokorren barruan dago.

Garrantzitsua da kontuan hartzea Fadurako hegoaldean dauden bi eremu urbanizaezinak:


Bolueko hezeguneko eremua Espazio Libre eta Berdeguneen Sistema Orokorren barruan dago, eta babes bereziko lurzoru urbanizaezin babestu gisa sailkatuta dago: P3 - Babes Zorrotza (3.3.8. art. eta hurrengoak).

Bolue 1 eta 2 futbol-zelaiak eta autobidearen artean kokatuta dagoen eremua, araubide erkideko lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta dago (3.3.5. art. eta hurrengoak), eta HAPOn arabera, hau izango da bere lehentasunezko erabilera: "gaur egungo erabileraren jarraipena izango da", araubide honek ekartzen dituen erabilera-mugak ere kontuan hartuz. Fadurako eremurako erabilera eta eraikuntza baldintzak 13. ordenantzan ezartzen dira. Orain, oinarritzko parametro batzuk aurkeztuko ditugu:

1. Gutxieneko lurzatia 800 m²
2. Gehieneko okupazioa % 30.
3. Eraikinaren gehieneko garaiera: 3 solairu.
4. Mugakide eta bideetarako distantzia 4 m.
5. Eraikinen arteko distantzia 8 m
6. Sestra gaineko sabaiaren koefizientea 0,25 m²/m²
7. Area bakoitzaren aprobetxamendua 0,25 m²/m².

Fadurako partzela bakarrek katastroaren arabera, Fadurak 137.545 m²-ko azalera du, gehieneko azalera eraikigarria 0,25 m² eraikikoa da partzelaren m² bakoitzeko, beraz, partzela osoan 34.386 m² eraiki daitezke.

Getxo Kirolakek argitu behar du zein den orain arte erabilitako eraikigarritasuna.



Iturria: Getxoko HAPO, bertsio osoa eta 2012ko abenduaren eguneratutakoa, Euskadiko errepide-sarearen sailkapena, uztailearen 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, Uren Legearen testu bategina onartzen duena.

Errepideak (Bizkaiko errepideei buruzko martxoaren 24ko 2/2011 Foru Araua)

Kiroldegian nagusiki hiru bide-sarek eragiten dute: BI-637 autobidea (oinarrizko sarearen zatia), Makaleta Etorbidea (Aldundiak Udalaritza transferitzeko prozesuan dagoena) eta gainerako bertako kaleak. Mota honetako errepide bakoitzak zenbait muga ekartzen ditu Fadurako eremuan gara daitezkeen erabileretan eta jardueretan. Horien artean, arautegiak hauek kontuan hartzen ditu:

Jabari publikoko eremua (30. art.), honela definitutakoa: “errepideek okupatutako lurrak eta haien elementu funtzionalak, eta errepideko lur-zerrenda bat. Lur-zerrenda horrek zortzi metroko zabalera izango du autobide, autobia [...]; gainerako errepideetan, berriz, hiru metroko zabalera. Zerrenda horiek bidearen alde bietan egongo dira, Eta horizontalean eta bidearen ardatzarekiko perpendikularrean daude neurtuta, laugunearen kanpoko ertzetik”.

Zortasun-eremua (31. art.): “ezin izango da lanik egin, eta bide-segurtasunarekin bateragarri diren erabilerak bakarrik egin daitezke. Horretarako, edonola ere, Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunaren baimena behar da, beste edozein erakundek gaian eduki ditzakeen eskumenak gorabehera”. Laugunearen kanpoko ertzekiko bi lerro paraleloz mugatuta dago, 25 m-ko distantziara autobideetan, eta 8 m-koa gainerako errepideetan.

Eraginpeko eremua (32. art.): “eraginpeko eremuan edozein lan mota eta instalazio finkoak zein behin-behinekoak egiteko, erabilera aldatzeko eta zuhaitzak landatu edo mozteko, Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunaren baimena behar da, beste edozein erakundek gaian eduki ditzakeen eskumenak gorabehera”. Laugunearen kanpoko ertzekiko bi lerro parale-

loz mugatuta dago, 100 m-ko distantziara autobideetan, eta 30 m-koa gainerako errepideetan.

Eraikuntza-lerroa (34. art.): galtzadaren kanpoko ertzetik 50 m-ra dago autobietan, eta 12 m-ra sare lokalean. Lerro horretatik errepideraino debekatuta dago edozein eraikuntza-lan egitea, sestraren gainean zein sestrapean.


Ibaiak (Uren Legearen testu bategina onartzen duen uztailearen 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua)

Eremu hauek eragiten dute nagusiki Fadurako eremuan:

Jabari publiko hidrauliko gisa definitutako eremua, urei buruzko abuztuaren 2ko 29/1985 Legearen I., IV., V., VI. eta VII. aurretiko tituluak garatzen dituen Jabari Publiko Hidraulikoaren Arautegia eta eguneratzea onartzen duen apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuan definitutako muga guztietan.

Polizia eremua: “ehun metroko zabalera al-boko zerrenda batez osatuta alde bakoitzean, ibilgua mugatzen duen lerrotik zenbatuta, lurzoruen erabilera eta han garatzen diren jarduerak baldintzatzen direla”.

Lehentasunezko fluxu-eremua, honela definituta: “eremuaren loturaz edo uholdeetan fluxua lehentasunez metatzen den eremuez, huste handiko bideez, eta 100 urteko errepikatze-dendorako uholderako, pertsonak edo ondasunek kalte larriak izan ditzaketan eremuaz osatuta dagoen eremua; kanpoko muga bi eremuak barne hartzen ditu”.



Kiroldegian eragiten duten baldintza nagusien adierazpen grafikoa

- Jabari publiko hidraulikoa
- Polizia eremua
- Lehentasunezko fluxu-eremua
- Errepideen jabari publikoa
- Zortasun-eremua
- Eraginpeko eremua
- Eraikuntza lerroa

TIPOLOGIAK

Alde batean autobidea dagoen arren, Fadurako eremua oso hurbil dago dentsitate ertaineko zenbait hiri-eremutatik. Hurbilen dauden hiri-egiturak bi motatakoak dira:

Iparraldean eraikin garaiko (8 solairu) auzo bat dago, hiri etxadi ireki bat osatzen dutena, ongi zehaztutako izaerarekin. Ekipamendu publiko batzuk barne hartzen ditu: Lanbide Heziketako Institutu bat eta Bigarren Hezkuntzako Institutu bat. Iparraldean hiri-egitura zatitzen da, gehiago sakabanatzen da eta ez da hain dentsoa.

Mendebaldean, kiroldegia antzeko izaera duen eraikuntza-lerro jarraitu batez inguratuta dago: etxebizitza-bloke isolatuak etxadi irekian, dentsitate handikoa, eta oro har, lurpeko aparkalekua dutenak.

Nabarmendu behar da eraikinen artean dagoen alde nabaria bidegurutzearen iparraldean, eta kiroldegitik zehar kokatzen diren eraikinak hegoaldean: iparraldekoek, oro har, merkataritza-etxabeak dituzte, eta hegoaldekoak, berriz, etxebizitzak bakarrik dituzten eraikinak dira. Horrek alde nabaria eragiten du kalearen erabileran.

Iturribarriko eremu berrian Etorbideko eremuaren antzeko hiri-garapen bat aurreikusten da, eta etxebizitzarako da nagusiki

Dentsitate handiko eremuak, eraikin isolatuak altueran.





←
 ÁDentsitate handiko
 eremuak, 4-6 solairuko
 eraikin isolatuak
 Makaleta Etorbidetik
 zehar.

Garapen berriak gutxi
 gorabehera hiri-morfo-
 logia hori eta den-
 tsitate bera manten-
 duko du Iturribarriko
 eremuan.



FADURAKO AZPIEGITURAK

Iturriak: Getxoko Udala, Getxo Kirolak, Getxo Kirolaren txostena 2016.

Estolderiako eta edateko uraren loturak

Fadurako kiroldegia saneamendu-kolektore batek zeharkatzen du iparraldetik hegoaldera, eta antzina ibaian zuzenean isurtzen diren deskarga guztiak biltzen ditu. Kolektorea eraikitzearen ondorioz nabarmen hobetu ziren ibaiaren baldintzak, izan ere, etxeko deskargen ondorioz zegoen ia kutsadura guztia kendu zuen. Hala ere, ez ziren guztiz konpondu Fadurak urak erabiltzeko eremuak. Ibai-irteerak, esaterako, ibaiaren mailaren azpitik daude, lokatzak geratzen joaten direlako han, eta deskargatzean arazoak sortzen dira.

Interesgarria da jakitea Fadurako aparkalekuaren erdian, ibai-uren lurpeko gordailu bat dagoela, eta ura gordetzeko eta ureztatzeko berrerabil litekeela, edo bateragarriak diren beste erabilera batzuetarako.

2016. urtean Fadurako kiroldegia 102.003 m³ ur kontsumitu zituen, honela banatuta: 78.982 m³ (% 77,4) igerilekuen eraikinean, 3.830 m³ (% 3,75) frontoien eraikinean, 14.476 m³ (% 14,2) atletismo-eremuan, 73 m³ (% 0,07) Bolueko futbol-zelaietan eta 4.642 m³ (% 4,55) Getxo taldearen zelaian. Uraren % 19 gutxi gorabehera erabili zen ureztatzeko.

Hondakinen bilketa

Kiroldegia ez du hondakinen kudeaketa berezirik.

Inausketen hondakinak eta berdeguneak mantentzeko eta kontserbatzeko sortutako gainerako hondakin organikoak, mantentzeaz arduratzen diren enpresa berek kudeatzen dituzte, hau da, kiroldegitik kanpo tratatzen dira eta modu autonomoan (konpostaje).

Faduran sortutako gainerako hondakinak hiri-hondakin arruntak bezala tratatzen dira eta modu berean kudeatzen dira. Kiroldegiaren inguruetan Getxoko Udalak kudeatutako zenbait edukiontzi daude (beira, papera, ontziak...). Edukiontziak Makaleta Etorbidean daude, kafetegiaren parean, eta aparkaleku nagusiaren sarreraren parean, eta Bizkerre kalean, iparraldeko sarbidearen parean.


Kiroldegia ez ditu sortzen bestelako hondakin berezirik. Igerilekuetan erabilitako produktu kimikoak (sodio hipoklorito eta azido sulfuriko beheratua) saneamendu-sarean zuzenean deskarga daitezkeen kontzentrazioetan erabiltzen dira.

Energia

Instalazioek sare elektrikorako zenbait konexio dituzte. Horietako batzuk behe-tentsiokoak dira (garagardotegia eta Getxo taldearen futbol-zelaia esaterako), eta tentsio ertaineko beste batzuk transformadore batekin. Atletismo-pistaren harmailen eraikinean kokatuta dagoen transformadorea beste instalazio batzuetan ere erabiltzen da, hala nola igerilekuen eta frontoien eraikina. Eraikin nagusiko galdara-gelan (gas naturalekoak) sorgailu bat ere badago.

Gaur egun, bi erakinek bakarrik dituzte eguzki-panelak: atletismo-pistaren aldagelak eta Bolue 1 eta 2 futbol-zelaiaren aldagela berriak.

2016ko txostenaren arabera Getxo Kirolaren instalazio guztiek 2.067.116 CO₂ kg sortu zituzten (gas naturala, berokuntza, etxeko ur bero, elektrizitatea, makinatarako gasolina eta ibilgailuetarako gasolioa); instalatutako eguzki-panelek 29.721 kg CO₂-ko aurrezkia ekarri zuten.



→
Estolderia instalazio nagusiak eta hondakin-urak kudeatzeko sistema eta Fadurako eremuan ura hornitzeko sistema..

▲ Sute-ahoak

● Saretak


● Ur-harguneak


■ Iturriak

— Ibai-urak

— Ur beltzak

— Sare unitarioa





← Argiztatzeko elementuak Fadurako kiroldegian eta inguruko eremuetan

● Luminariak

▼ Semaforoak

— Kanalizazioak

TOPOGRAFIA

Iturriak: Getxo Kirolak, Getxoko Udala.


Gobela ibaiaren haranean dagoenez, Fadurak oso malkartsua ez den topografia du. Getxoko gainerako udalerriarekin alderatuz, nahiko laua da.

Ibaiaren ibilgua alde batera utzita, +4m-ko kotan dagoena, gainerako eremua +10m eta +8m artekoa da. Gutxieneko kota diferentzia dago instalazioaren 750 m-ko luzeran, eta batez besteko malda % 0,26 da.

Fadurako lursailaren gaur egungo egoera ez da bere berezko egoera. Kirol-instalazioa bihurtu aurretik, Fadurako eremua ibar bat zen, eta bere maila naturalak pixkanaka artifizialki betetzen joan dira, kiroldegia eraiki zenetik.

Gobela ibaiaren ibilguan egindako hobekuntza hidraulikoko lanen ikuspegi, tokiaren topografia aldatu dutenak.





←
Kirolddegiko eremuaren
eta bere inguru
hurbilaren topografia.

- 4 m
- 5 m
- 6 m
- 7 m
- 8 m
- 9 m
- 10 m
- 11 m
- 12 m
- 13 m
- 14 m

ILDO ESTRATEGIKOAK – HIRI TESTUINGURUA ETA AZPIEGITURAK

Kiroldegiaren espazioek eta funtzioek iparraldeko eremuekin (Zubi-leta, industrialde zuria, industrialde gorria, Berango) duten erlazioa hobetzea, sarbideen kudeaketa berriro pentsatuz.

Kiroldegiaren espazioek eta funtzioek Algortarekin duten erlazioa hobetzea, Makaleta Etorbidean zehar mendebaldeko eremu osoa berriro pentsatuz

Gaur egungo kanpoko padel-eremuak Iparbide Kaleko eremuarekin duen erlazioa berriro pentsatzea, Makaleta Etorbidearen etorkizuneko transformazioa kontuan hartuz.

Iturribarriko hiri-garapen berriak Faduran izan dezakeen eragina eta eremu horretan sor daitezkeen erlazio berriak kontuan hartzea.

Fadurak Getxoko gainerako ekipamenduekin duen lotura hobetzea, bai Gobelako haranean, bai ekialde-mendebalde ardatzean.

Energia berriztagarrien ezarpena aztertzea, klimatizazio, argiztatze, etxeko ur bero beharrak eta bestelakoak asetzeko.

Euri-ura biltzeko eta erabiltzeko sistema hobetzea, parkeko paisaia berriarekin integratuz.

Ura aurrezteko neurri berriak txertatzea, metatutako eta belar natural eta artifizialeko pistak ureztatzeko birziklatutako ura erabiliz.

Hondakin organikoen kudeaketa aztertzea eta hobetzea, konpostajerako edo energia sortzeko erabiltzen direla bermat zeko.

Energia aurrezteko neurri berriak txertatzea. Argi-kutsadurari buruzko arautegiak betetzen dituzten argiztatze-sistema eraginkorrak instalatzea.